



Oinarriak

1. Diskoetxe batekin inolako kontraturik ez duten Euskal Herriko talde eta bakarlari guztiek hartu ahal izango dute parte. Ez da inolako mugarik jarriko musika estiloari dagokionez.

2. Bi sari emango dira:

Epaimahaiaren Saria: Epaimahaiaren Sariaren irabazleak **6.000** euro dirutan, Gazteak aukeratutako ekoiztetxe batek osatutako **bideokliparen** grabazioa eta 2010eko **Bilbao BBK Live** jaialdian zuzenean jotzeko aukera irabaziko ditu.

Entzuleen Saria: Epaimahaiak **10 maketa** onenak aukeratuko ditu eta Gaztea Irratiko entzuleek eta Gaztea atariko erabiltzaileek erabaki ahal izango dute zein den Entzuleen Saria eramango duen maketa. Irabazleak **2.000** euro eskuratuko ditu.

Horrez gainera, saritutako taldeek Gaztea Live saioan zuzenean jotzeko aukera izango dute.

3. Talde edo bakarlari bakoitzak nahi beste kanta bidal ditzake. Bi modu daude horretarako:

Internet bidez abestiak eta bideoak **igotzea,**
www.eitb.com/gaztea atarian sartuta.






Ondorengo helbidera CDa bidaltzea:
Maketa Gaztea
Miramon Pasealekua 172
20.014 Donostia (Gipuzkoa)

Abestiarekin batera, talde edo bakarlari bakoitzak aurkezpen bideo bat bidali beharko du. CDa bidaltzen dutenek, bestalde, hainbat datu gaineratu beharko dute: Abestiaren izenburua, talde edo bakarlariaren izena, herria, harremanetarako telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Internetez bideoak igotzen dituztenek formulario batean eman beharko dituzte datu horiek.

4. Epaimahaiak egindako aurre-aukeraketatik aterako diren 10 taldeek euren lana zuzenean defendatu beharko dute. Horretarako:

1. Talde edo bakarlariek epaimahaiak hautatutako 10 abestiak joko dituzte zuzenean Bilborock aretoan **martxoaren 26an**.
2. Oinarrizko soinu ekipamendua eta musika tresnak antolakuntzak jarriko du.
3. Talde bakoitzak **ordu** bat izango du muntaia lanak egin, abestia entseatu eta jotzeko.
4. Emanaldi horiek eitb.com atarian eta ETB-3n eskainiko dira.
5. Entzuleen sarirako botoa www.eitb.com/gaztea atarian eman ahal izango da.

5. Hauxe izango da Gaztearen XIX. Maketa Lehiaketaren egutegia:

-  Otsailaren 15etik martxoaren 16ra: Maketak bidaltzeko epea
-  Martxoaren 23an: Epaimahaiak hautatutako 10 maketa onenak zein diren jakingo dugu.
-  Martxoaren 26an: Epaimahaiak hautatutako 10 talde edo bakarlariek Bilborock aretoan defendatu beharko dute euren maketa zuzenean.
-  Martxoaren 30etik apirilaren 28ra: Entzuleen Sarirako botoak eman ahal izango dira.
-  Apirilaren 29an: Epaimahaiaren Saria eta Entzuleen Saria zein taldek edo bakarlarik irabazi dituzten jakingo dugu.

6. Epaimahaiak hala baderitzo, bi sarietakoren bat hutsik gera daiteke.

7. Gaztearen XIX. Maketa Lehiaketan parte hartzeak arau hauek guztiak onartzea dakar. EITBk eskubidea edukiko du jasoko dituen maketak Interneten eskegitzeko eta irratian eta telebistan emititzeko.

8. Gazteak behar bezala jakinaraziko du oinarri hauei dagokion aldaketa oro.